



Argitaratze-data: 2019/05/13

## ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2019 Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO

### HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ZIURTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

**Entregatzeko epea: 2019ko maiatzaren 20tik 24ra arte, biak barne.**

#### **Nortzuek entregatu behar dute:**

Onartuak eta baztertuak dauden izangaiek, baldin eta gora jotzeko errekurtsua jarri badute eta ebatzi gabe badago; baldin eta Hezkuntza Sailean ez badago irakasleen 2. Hizkuntza-eskakizuna edo salbuespena egiaztatzeko informazioa.

**Zerrenda bat argitaratu da; horretan zerrendatzen diren izangaiek AURKEZTU BEHAR DUTE** ondoren adierazten diren **TITULAZIO EDO ZIURTAGIRIREN BAT** (irakaslearen 2. HEa edo salbuespena egiaztatuta ez egoteagatik). **Zerrenda hori kontsulta daiteke <http://www.irakasle.eus>** –en («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Berriak: Hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea».

(\*) **OHARRA:** I. Eranskin horretan honako hauek ere agertzen dira: deialdi honen barruan horretarako egiten ari den irakasleen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketara aurkeztu diren izangaiek (deialdi honen 2.6.1 oinarriaren 1. apartatua); proba horien behin betiko emaitzak oraindik ez baitira argitaratu. Deialdi honetan euskararen proba espezifikoa gainditzen badute, Hezkuntzako Sail honek kontutan hartuko du egiaztatzea, eta izangaiek ez du agiririk aurkeztu behar.

#### **Nola egiaztatu daiteke irakaslearen 2. HE?**

- a) Hezkuntza Sailak deitutako irakaslearen 2. HE-eko probak gainditzea.
- b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia-erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako euskararen gaitasun-ziurtagiria edo 5. mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan zaharra, urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretuaren arabera).
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia-erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako gaitasun-mailaren (C1) ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren arabera).



- e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.
- f) HABEko 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).
- g) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko 3. hizkuntza-eskakizuna.
- h) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.
- i) Euskaltzaindiako D ziurtagiria.
- j) Salbuespena aitortzea, unibertsitate-titulua edukitzeagatik, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan zehaztutako betekizunak dituena (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena).
- k) Euskararen jakite-mailaren beste titulu edo ziurtagiri batzuk, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutakoak (297/2010 Dekretua, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

**Aurkeztu behar den dokumentazioa:**

- hizkuntza-titulazioa edo ziurtagiria.
- dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria, ziurtatzeko salbuetsita dagoela adierazten duena.

**Entregatzeko modua:**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari idatzi bat aurkeztu beharko zaio, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010).

Dokumentu honen bukaeran eredia atxikitzen da (**ERANSKINA**).

**Entregatzeko tokia:**

a) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan:

- Araba: San Prudencio, 18 - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Gran Vía, 85, Bilbao (1º solairua)
- Gipuzkoa: Andia, 13 (Hezkuntza) - Donostia

b) Zuzenean dituen bulegoetan:

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 behea - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Kale Nagusia 85 – Bilbao
- Gipuzkoa: Andia kalea 13 – Donostia

